

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Etorkinak New Yorken ongi hartuak zirenean



Ezkerrean, etorkin europarrak New Yorkera iristen, Askatasunaren Estatuaren parlean dutela. Eskuinean, etorkinak Ellis uharterean lehorreraten.

NEW YORK, 1886KO URRIAREN 28A. Frédéric-Auguste Bartholdi artista frantziarraren *Mundua argitzen duen askatasuna* izeneko kobrezko estatua erraldoia inauguratu zuten Hudson ibaiko uharte txiki batean. Handik aurrera, Libertasek, antzinako Erromako askatasunaren jainkosak egin zien harre-ra New Yorkera itsasontziz iristen ziren milaka eta milaka etorkinei.

Handik lau urtera, 1890ean, estatuaren uhartetik oso hurbil dagoen beste irlatxo bat, Ellis Island, ordura arte nagusiki jarduera militarretarako erabili zena, New Yorkeko aduana nagusi bilakatu zen. Horrenbestez, hirira itsasoz iritsitakoei Ellisen egiten zieten benetako harrera. Eta 1892tik 1954ra gutxi gorabehera hamabi milioi etorkin pasa ziren handik, gehienak europarrak. Horietatik gutxi batzuek amets amerikarra betetzea ere lortuko zuten, hala nola Isaac Asimov idazle eta zientzialariak, Frank Capra zinema zuzendariak, Cary Grant, Bela Lugosi, Claudette Colbert eta Rodolfo Valen-

tino aktoreek edo Lucky Luciano gangsterrak.

Elliseko mugan etorkinei osasun azterketa egiten zieten eta haien legezko egoera egiaztatzen zuten. Gehienek, %98k, AEBetara sartzea lortu zuten. Deportatutako %2 hori nagusiki “poligamoe-k, kriminalek, anarkistek eta gaixotasun infekzio-soak zituztenek” osatzen zuten. Etorkinak ongi hartuak zirela, alegia, AEB herrialde gazte eta dinamikoaren zena, eta gosetik, gerratik nahiz jazarpenetik ihesi joaten ziren europarrek hazten ari zen ekonomia eskulanez elikatzen zuten.

1954an Elliseko mugari eusteak ez zuen zentzurik, ordurako immigrazio politika aldatua baitzen, eta bertan behera utzi zuten. 1965ean Askatasunaren Estatuaren Monumentu Nazionalaren parte izendatu zuten. Eta 125 urte bete berri dituen Askatasunaren Estatuak turista bisa agortu baino lehen AEBetatik alde egitera derrigortuta dauden atzerritarrei egiten die ongietorria.




Arrastoak

Poeren museo-etxea ixteko arriskuan da

EDGAR ALLAN POE idazleak hainbat urtetan bizitoki izan zuen etxe xumea, egun museo dena, diru-laguntzarik gabe uztea erabaki dute, Baltimoreko (AEB) instituzioak egiten ari diren murrizketa ekonomikoak direla eta. Museoaren urteko aurrekontua 85.000

dolarrekoa da soilik, baina idazlearen zale amorratuaren kultu-guneak ez du nahikoa bisitaririk jasotzen, hiriko ibilbide turistikoetatik kanpo dagoelako. Irsten hasi diren borondatezko ekarpen ekonomikoak nahikoak ez badira, ateak itxiko ditu.



CORINNE MAY BOTZ